

**Nafarroa****IKASTURTE HASIERA:
LEHENGO LEPOTIK BURUA**

Kaixo lagunak:

Jada ikasturte berrian gabiltzan honetan, urtero bezala arazoak pilatuz doaz Nafarroako Irakaskuntza publikoa deritzan horretan.

Iragan ikasturteko gai izarra STEE, CCOO, AFAPNA, UGT eta CSIF sindikatuek sinatu akordioa izan zen. Bertan, irakasle lan baldintzak eta irakaskuntzaren kalitatea hobetzerako neurriak ei zeuden.

Bere garaian, ordea, LABetik kea saltzen ari zireneko salaketa azaldu genuen. Izan ere, delako "pacto" horretan ageri diren neurri asko baldintzapean daude, eta beste batzuk aurrera eraman ahal izateko baliabideen falta nabarmena da.

Bestalde, hezkuntza departamendu "berriak" aurrekoaren politika berdina aplikatzen segitzen du oraindik ere, eta aldaketa sakon bat eman ezean, nekez egin ahal izanen zaio aurre Nafarroako Irakaskuntzaren benetako beharrei: Ordezkoen araudia, plantillen egonkortzea, lan baldintza duinak behar bereziak dituzten kolektiboentzako (haur hezkuntzako eta irakasle ibiltariak, etab.).

Gauzak horrela, irailean gaude eta pairatzen ari garen egoera argigarria da oso:

- Ikastetxe aunitzetan irakasleak falta dira (eta ez bakarrik Diario de Navarran agertzen diren hamar horietan).
- Plantillak osatzeko garaian hainbat ikuskarik ez dute ituna bete.
- Hainbat kasutan, irakasle ibiltariei ez zaie dagozkien ordu murrizketak aplikatu.
- Esleipenean hartutako plaza eta ikastetxean eskaintzen denaren arteko desberdintasunak inoiz baino nabarmenagoak izan dira.
- 58 urte gorako irakasleen ordu murrizketak ez da aplikatzen ari.

Bistan denez, galtza bete lan izanen dugu aurtengoan ere, Nafarroarako Irakaskuntza publiko berri bat lortzeko bidean.



<http://www.labsindikatu.org/sektoarak/irakaskuntza/publika>